



ACT-MC-2019/0054

## KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

### 1. ZENBAKIDUN ARTXIBO ELEKTRONIKOAK IREKITZEA

(Balio-judizioaren bitartez baloratu beharreko dokumentazioa)

**Bileraren gai-zerrenda:** GI-3871 errepideko 0,860 eta 1,200 KPen artean, fabrikako lanak egitea eta drainatzeko sarea hobetzeko (3-OF-49/2019) obra kontratuaren lizitazioan aurkeztutako eskaintzen artxibo elektronikoak irekitzea (1.artxiboa)

**Eguna:** 2019ko uztailaren 3a

**Hasiera/amaiera ordua:** 13:00/13:30

**Tokia:** Bide Azpiegituretako Departamentuaren 3.anitzeko gela (Miramon pasealekua, 166.)

#### Bertaratutakoak:

**Mahaiburua:** Iñigo Zufiria Zatarain, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burua.

**Bokalak:** Agustín López-Dóriga Fernández, Bide Azpiegituren Proiektuak eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua.

Maider Apaolaza Lizarazu, Bide Azpiegituren Birgaitze eta Berrikuntzako Zerbitzuko ITOPa.

Elixabete Martinez Iruretagoian, Departamentuko idazkari teknikoa.

Josu Irazusta Astiazaran, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailatza eta Auditoretzako zerbitzuko.

**Idazkaria:** Jaione Olaizola Gorrotxategi, Kontratazio Zerbitzuko buruaren orde.

Ekintza honetarako Iñigo Zufiria Zatarainek (mahaiburua) Jaione Olaizola Gorrotxategi izendatu du idazkari gisa, administrazio-klausula partikularren agiriko 22.baldintzak diotenaren arabera.

Gaur, 2019ko uztailaren 3a, Kontratazio Mahaia eratu da 1. artxibo elektronikoak irekitzeko, dokumentazio teknikoa hain zuzen, balio-judizio bidez balioesteko irizpideak. Enpresa batek aurkeztu du eskaintza, CONSTRUCCIONES ITURIOZ SA enpresak hain zuzen.

Horrela, 1.artxibo elektronikoak ireki da. Aurkeztutako enpresak balio-judizioaren bitartez baloratu beharreko diren irizpideen epigrafea ez duela errespetatu ikusi da (ezaugarrien taularen 17.atalean ezarritakoak). Teknikariek edukia aztertu beharko dute.

Bertaratutakoek beste oharririk edo erreklamaziorik egin ez dutenez gero, ekitaldia amaitutzat eman da. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 159.4.e) artikuluan xedatutakoari jarraituz, teknikariek 7 eguneko epean egin beharko dute txostena.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostian, 2019ko uztailaren 3an

MAHAIBURUA,

IDAZKARIA, ordezkapenez

Sin.- Iñigo Zufiria Zatarain

Sin.- Jaione Olaizola Gorrotxategi